

Guruzne  
Carrasson  
Torrontegi

Sopelako  
alkategaia

Candidato  
a la alcaldía de  
Sopela

eh Bildu



# Maite duzun Sopela

*¡Es posible!*

EGINGO DUGU.

# Beste modu batean egin daiteke, herriarekin, pertsonekin. Hobeto egin daiteke eta plan bat dugu.

**Gure herriko erronkak.** Sopela erakusleihoko gisa erakutsi nahi badigute ere, gure herriak arazo larriak ditu. Gure ikastetxe publikoen masifikazioa, ingurune natural degradatuak, babes ofizialeko etxebizitzak faltan, trafikoa, merkataritza txikiaren krisia, euskararen ahulezia, gabeziak kultura-, kirol- eta aisiaaldi-instalazioetan... Azken hamarkadetan egindako udal-politika atzerakoiekin ekarri gaituzte egoera honetara. Interes partikularrak eta alderdikoia lehenetsi dira, Sopelako bizilagunen ongizatearen kaltetan.

Sopela herri gaztea da. Dinamikoa. Bizia. Asko dago egiteko. Eta horrenbeste behar dugun aldaketa hori loratzen ari da. Hezkuntza, Euskara, Berdintasuna, Justizia Soziala... Egoerari buelta emateko aukera dugu.

**Gure lanaren balantzea.** Lan handia egin dugu legegintzaldi honetan zehar, proposamen berriak eginez eta aurreko urteetan blokeatuta zeuden hainbat proiektu bultzatzuz. Kritika bakoitzeko alternatibak aurkeztu ditugu. Legegintzaldi honetan Udal Gobernuak martxan jarritako hainbat proiektu guk jarri ditugu mahai gainean. Loroñon hezkuntza eraikin berri bat egiteko proposamena, erdialdeko oinezkoentzako guneari bultzada, Urko hezegunearen projektua, Iberrotaren ingurunarekin integratutako jolasgunea, Urgitxieta plaza hobetzeko ekimena, Iberreko auzoa berritzeko inbertsioen beharra, Abaro sektorea hobetzeko proposamenak, Udalean prozesu partehartzaileak antolatzeko beharra,

kultur instalakuntzen erabileraren inguruko hausnarketa abian jartzea...

**Herri projektua.** Argi daukagu bestelako modu bat badagoela udala gidatzeko eredu kooperatiboa eta eraldatzalea, herritarrekin eta herri eragileekin lankidetzan. Sopelak lidergo berriak behar ditu, gure auzokideekin elkarlanean herriarentzat onena bilatuko duena. Gardentasunetik jokatuko dugu. Gauzak hobeto egin daitezke, beste modu batera egin daitezke. Horrela, 2023ko udal hauteskundeak abagune erabakigarria da herri aurrerakoi, ekologista, feministak eta euskaltzalea gauzatzeko. Zalantzak gabe, hori guztia lortzeko aukerarik egokiena EH Bildu da.

**Gure balioak.** Justizia eta berdintasuna, feminismoa, euskaltzaletasuna, ekologismoa, udalgintza, gardentasuna, gizartearen zerbitzurako bokazioa, elkarritzeta eta akordioa, errespetua, eredugarritasuna, zintzotasuna, konfiantza, hurbiltasuna.

**Aldaketa dator.** Sopela hobetzeko beharrak dela eta demokratikoki osasun-garria. Urte hauetan guztietan aurkeztutako proposamen eta ekimenekin, lidergoak erakutsi dugu aldaketa egia bihurtzeko. Prest gaude aldaketa hori errealtitate bihurtuko duten eragile sozial eta politikoekin lankidetza estuan aritzeko, herri desberdin bat irudikatzeko, Sopela hobe bat posible da. Egin egingo dugu.

# Se puede hacer de otra manera, con el pueblo, con las personas. Se puede hacer mejor y tenemos un plan.

EGINGO  
DUGU.

**Retos.** Aunque nos quieran mostrar Sopela como un escaparate publicitario, nuestro pueblo tiene problemas muy serios. Masiificación de nuestros centros educativos públicos, entornos naturales degradados, falta de VPOs, el tráfico, la crisis del pequeño comercio, la situación del Euskera, carencias en instalaciones culturales, deportivas y de ocio. Las políticas municipales retrógradas llevadas a cabo en las últimas décadas nos han traído a esta situación. Se han priorizado el amiguismo y los intereses particulares y partidistas en detrimento del bienestar de los vecinos y vecinas de Sopela.

Sin embargo, Sopela es también un pueblo joven, dinámico, vivo y queda mucho por hacer: educación, euskera, igualdad, justicia social, vivienda, movilidad... Se avecina un cambio y ahora tenemos la oportunidad de revertir la la situación.

**Balance de nuestro trabajo.** Hemos llevado a cabo una intensa labor municipal a lo largo de esta legislatura, realizando nuevas propuestas e impulsando proyectos que en años anteriores estaban bloqueados. Por cada crítica que realizamos, hemos presentado alternativas reales. Hemos puesto sobre la mesa proyectos estratégicos que luego han sido puestos en marcha por el Ayuntamiento: El proyecto de un nuevo edificio educativo en Loroño, el impulso a la zona peatonal del centro, el proyecto del humedal de Urko, la zona de juegos integrada con el entorno natural en la plaza Iberrota, la iniciativa para mejorar la plaza Urgitxieta, la necesidad de

inversiones para renovar el barrio de Iberre, propuestas para mejorar el sector Abaro, la necesidad de organizar procesos participativos en el Ayuntamiento, la puesta en marcha de un proceso de reflexión sobre el uso de instalaciones culturales.

**Un proyecto para Sopela.** Tenemos claro que hay otra forma de hacer política municipal, un modelo cooperativo y transformador, trabajando estrechamente con agentes sociales y con los vecinos y vecinas de nuestro municipio. Sopela necesita nuevos liderazgos, que en colaboración con la ciudadanía busquen lo mejor para el pueblo. Actuaremos con transparencia. Las cosas se pueden hacer mejor, se pueden hacer de otra manera. Así, las elecciones municipales de 2023 son una oportunidad decisiva para hacer realidad una Sopela progresista, ecologista, feminista y euskaltzale. Sin duda, la opción más adecuada para conseguir esa Sopela mejor es EH Bildu.

**Nuestros valores.** Justicia e igualdad, feminismo, Euskara, ecologismo, municipalismo, transparencia, vocación de servicio a la sociedad, diálogo y acuerdo, respeto, ejemplaridad, honestidad, confianza, cercanía.

**Se acerca el cambio.** Porque es necesario para mejorar Sopela, porque es democráticamente saludable. Con las propuestas e iniciativas presentadas durante todos estos años, hemos demostrado liderazgo para hacer realidad ese cambio. Estamos dispuestas a colaborar estrechamente con los agentes sociales y políticos que hagan realidad una Sopela diferente, una Sopela mejor. Es posible y lo vamos a hacer.



# Gure taldea

## Nuestro equipo

«Sopelak lidergo berriak behar ditu gaur egungo arazoei konponbide errealak eskaintzeko, gure komunitatetik bertatik, herritarrei ahotsa emanetz, orain eraikiz gure etorkizuna».

"Sopela necesita nuevos liderazgos que ofrezcan soluciones reales a los problemas de nuestro pueblo, desde nuestra propia comunidad, dando voz a la ciudadanía, construyendo ahora nuestro futuro".

# Gure lehentasunak 2023-2027

## Etxebizitza, hezkuntza, ingurumena, mugikortasuna, berdintasuna eta gazteak

NUESTRA PRIORIDADES 2023-2027

VIVIENDA, EDUCACIÓN, MEDIOAMBIENTE,  
MOVILIDAD, IGUALDAD Y JUVENTUD

**Sopelan bizi:**

Babes ofizialeko etxebizitzak.

**Kalitatezko hezkunza publikoa:**

Zipiriñe eta Iberre.

**Naturaguneak babestu:**

Eraztun berdea eta sopela irudikatzeko  
beste eredu bat (hapo berria)

**Oinezkoentzako herria:**

Mugikortasun jasangarria eta bizi  
kalitatea.

**Berdintasuna:**

Emakumeen etxea.

**Gazteak:**

Kultur ekipamendu propioa.

**Zaintzak:**

Eguneko zentroa mankomunitate mailan.

**Hizkuntza politika:**

Euskara ardatz.

**Komunitatea:**

Bizikidetza eta adierazpen askatasuna.

**Tokiko garapena:**

Dendari txikiak eta ostalarriak babestu.

**Lidergo berríak:**

Parte-hartzea, lankidetza eta  
gardentasuna.

**Vivir en sopela:**

Viviendas de protección oficial.

**Educación pública de calidad:**

Zipiriñe e Iberre.

**Espacios naturales:**

Anillo verde y un nuevo modelo de  
diseñar sopela (nuevo pgou).

**Sopela para las personas:**

Movilidad sostenible y calidad de vida.

**Igualdad:**

Casa de la mujer.

**Juventud:**

Equipamiento cultural propio.

**Cuidados:**

Centro de día a nivel de mancomunidad.

**Política lingüística:**

Centralidad del euskera.

**Comunidad:**

Convivencia y libertad de expresión.

**Desarrollo económico:**

Defensa del pequeño comercio y  
hostelería.

**Nuevos liderazgos:**

Parte-participación, cooperación y  
transparencia.

# Hamaika proiektu zehatz herritarren bizitzak hobetzeko



## Etxebizitza eta hirigintza Urbanismo y vivienda

**ETXEBIZITZAREN ARAZOARI IRTENBIDEA:** Babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) Abaron eta Erritan, etxebizitza hutsak mobilizatu alokairuan jartzeko eta lonjak etxebizitza bihurtzeko ordenantza (BOE-en baldintzetan).

**AUZO BIZIAK:** Irisgarritasun-planari jarrera eman, kaleen mantentze-lanetan zentratuz eta adinekoen eta dibertsitate funtzionala duten pertsonei arreta berezia emanet. Larrabasterran, Urgitxieta plaza eta Iberre auzoa eraberritu. Herri-kohesioa bultzatu hondartzetako auzoekin eta Solondota hobetu. Sopelako erdigunean, oinezkoentzako gunea hedatu eta Jauregizar plaza berrizteko proiekta abian jarri.

**HAPO BERRIA:** Etorkizuneko Sopela irudikatzeko hirigintza-plan berrian ikuspegi aurrerakoiak bultzatu, herri kohesionatua goa lortzeko, gure naturaguneak babes-tuz eta etxebizitza pribatu en eraikuntza deskontrolatuari mugak jarriz.

**SOLUCIÓN AL PROBLEMA DE LA VIVIENDA:** Viviendas de Protección Oficial (VPO) en Abaro y Ripa; movilización de viviendas vacías para su puesta en alquiler y conversión de lonjas en viviendas (bajo condiciones de VPO).

**BARRIOS MÁS VIVOS:** Dar continuidad al plan de accesibilidad, centrándonos en el mantenimiento de nuestras calles y en las necesidades de las personas de mayor edad y de los vecinos y vecinas con diversidad funcional. En Larrabasterra, renovación de la Plaza de Urgitxieta y del barrio de Iberre. Garantizar la cohesión con los barrios cercanos a las playas, mejora de la calle Solondota. En el centro de Sopela, ampliación de la zona semipeatonal y renovación de la plaza de Jauregizar.

**NUEVO PGOU:** Diseñar la Sopela del futuro mediante la introducción de criterios progresistas en el nuevo plan de urbanismo, haciendo de Sopela un pueblo más cohesionado, respetando los entornos naturales y poniendo límite a la construcción descontrolada de vivienda privada.



## Hezkuntza Educación

**ZIPIRIÑE ETA IBERRE:** Eusko Jaurlaritzaren aurrean hezkuntza komunitateak erabakitzetan duena defendatz, gure hezkuntza-zentro publikoen kalitatea aldarrikatu, haur eta gazteek baldintza duinetan ikas dezaten.

**MUSIKA ESKOLA DINAMIZATU:** Bere funtzionamendua aldatu, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eta herrian parte-hartze biziagoa izan dezan (ikastaro-eskaintza, kultur ekintzetan parte hartu, antolaketa-aldaaketa, munizipalizazio-aukerak aztertu...).

**SOPELA HERRI-HEZITZAILEA:** Sopelako Udalak, hezkuntza eta kultur alorre-tako eragile sozialekin batera, zuzenean esku hartu haur eta gazteen hezkuntza-be-harrizanetan (sexu-hezkuntza, bizi-kidetza, ludopatia, osasun mentala, ingurumena, feminismoa, aislaldia...). Sopela haur eta gazteen ikuspegitik irudikatu, beraien iritziak kontutan hartuz (hirigintza, ekipamendua, kultur eskaintza...). Udal «Oin Herri» herri-hezitzaleen sarean eta Haurren Hirien Sarean integratzea.

**ZIPIRIÑE E IBERRE:** Defendiendo ante el Gobierno Vasco lo que decida la comunidad educativa de Sopela. Reivindicar la calidad de nuestros centros educativos públicos para que niños, niñas y jóvenes aprendan en condiciones dignas.

**DINAMIZAR LA ESCUELA DE MÚSICA:** Modificar su funcionamiento para mejorar la calidad del servicio y lograr una mayor participación en la vida cultural de Sopela (oferta de cursos, participación en actividades culturales, cambio organizativo, análisis de posibilidades de municipalización).

**SOPELA COMO MUNICIPIO EDUCADOR:** Que el Ayuntamiento de Sopela, en colaboración con los agentes sociales culturales y educativos del municipio, intervenga directamente en las necesidades educativas integrales de los más pequeños y de los jóvenes (educación sexual, convivencia, ludopatía, salud mental, medio ambiente, feminismo, ocio...). Pensar Sopela a través de los niños y niñas. Integración en las redes «Oin Herri» herri-hezitzaleak y en la Red Vasca de Ciudades con la Infancia.

## Ingurumena Medio ambiente

### **ERAZTUN BERDEA:**

Gure babes osoa Sopelako naturguneak eta ondare kulturala babesteko sortu den herri mugimenduari, Udalaren elkarlan osoa ziurtatuz. Urko hezegunea. Lemotza (Loroño) eta «Matadero» (Abaro) erreken erriberen lehengoratzea eta Sopelako kostaldeko gunea defendatu.

### **Aldaketa klimatikoaren kontrako estrategia:**

Efizientzia energetikoaren aldeko neurri zehatzak, bai udal eraikinetan, bai eraikin pribatuetan (autokonsumoa). Komunitate energetikoaren proiektua landu.

### **Ingurumen-hezkuntza indartu:**

Birziklapena bultzatu eta kontsumo-ohiturak aldatu estrategia pedagógicas dirigidas no sólo a niños y jóvenes, sino también a los adultos en general. Puesta en marcha del Consejo Asesor de Residuos formado por agentes sociales, vecinos y vecinas.

**ANILLO VERDE:** Todo nuestro apoyo al movimiento popular creado para proteger nuestros espacios naturales y patrimonio cultural, asegurando la plena colaboración del Ayuntamiento. Ampliación del humedal de Urko, recuperación de las riberas de los arroyos Lemotza (Loroño) y Matadero (Abaro), defensa la zona costera.

### **Estrategias contra el cambio climático:**

Medidas concretas a favor de la eficiencia energética, tanto en edificios municipales como privados (autoconsumo). Elaboración del proyecto de comunidad energética locales municipales como privados. Comunidades energéticas.

### **Apostar por la educación mediambiental:**

Impulsar el reciclaje y cambiar los hábitos de consumo utilizando estrategias pedagógicas dirigidas no sólo a niños y jóvenes, sino también a los adultos en general. Puesta en marcha del Consejo Asesor de Residuos formado por agentes sociales, vecinos y vecinas.

## Trafiko arazoei aurre egin

Dar solución a los problemas del tráfico

**HERRI BIZIGARRIA:** Herri erosoa eta segurua haur eta adinekoentzat. Mugikortasun plana eguneratu eta martxan jarri: oinezkoei lehentasuna, aparkaleku disusorioak, trafikoaren norabideak aldatu, abiadura moteltzeko neurriak, bidegorrien sarea osatu.

**GARRAIO PUBLIKOA:** Sopelbus zerbitzua sustatu, Bizkaibus indartu (Arrietara, Atxabiribil, UPV/EHU) eta Metroaren maiztasunak handitzea aldarrikatu (Sopela eta Urduliz).

**TRAFIKOA HERRITIK ATERA:** Saihesbideak (Erripa, Urko-Larrabasterra, Iparraldea-Ingestabaso).

**UN PUEBLO PARA LAS PERSONAS:** un pueblo amable y seguro para niños, niñas y mayores. actualizar y poner en marcha el plan de movilidad: prioridad a los peatones, aparcamientos disuasorios, cambios en las direcciones del tráfico, medidas para ralentizar la velocidad, completar la red de bidegorris.

**TRANSPORTE PÚBLICO:** impulsar el servicio de sopelbus, reforzar bizkaibus (Arrietara, Atxabiribil, UPV/EHU) y reivindicar la ampliación de las frecuencias del Metro (Sopela y Urduliz).

**SOLUCIONES A LOS PROBLEMAS DE TRÁFICO:** variantes (Ripa, Urko-Larrabasterra, Ingestabaso).



## Kultura, gazteak, aisiaaldia eta kirola

### Cultura, juventud, ocio y deporte

#### GAZTEEI ESPAZIO PROPIOA ETA

**AHOTSA EMAN:** Herriko gazteen hainbat belaunaldik historikoki eskatutako gunea eskaintza egun dauden baliabideak erabiliz (adibidez, frontoiko eraikina). Gazteen parte-hartze aktiboa Udaleko erabakietan ziurtatu (jai herrikoiak, bestelako herri-dinamikak, hirigintza, etxebizitza...).

#### KULTUR-INSTALAZIOEN ANTOLAKE-

**TA ALDATU:** Liburutegi berria, frontoia-ren eraikina, musika eskola, euskaltegia... herriko talde eta bizilagunen beharretara egokitutu. Herriko taldeentzat instalazioen erabilera doakoa bermatu (adibidez, Kurtzio erabiltzea tasak ordaindu gabe). Udalerrrian hutsik dauden lonjak kultur jardueretarako erabili.

**KIROLDEGIA HOBETU:** Nahiz eta 15+5 urtetarako kontrata iposatu diguten, kiroldegiaren egungo eredu pribatizatzai-lea gainditzeko borondatea dugu (munizi-palizazioa aztertu), zerbitzuaren kalitatea ziurtatuz eta herritarren beharrizanetara egokitutako instalazioak abian jarri. Padel pistak Urkon eraikitzearen proiektua gelditu, egungo kokalekua mantenduz (igerileku en ondoan). Iturrieta parkeko frontoia estali, egokitu eta bere erabilera librea bermatu.

#### DAR ESPACIO PROPIO Y VOZ A LA JU-

**VENTUD:** Ofrecer el espacio históricamente demandado por las diferentes generaciones de jóvenes del pueblo utilizando las instalaciones existentes actualmente (por ejemplo, el edificio del Frontón). Asegurar la participación activa de la juventud en las decisiones municipales (fiestas populares, otras dinámicas populares, urbanismo, vivienda...).

#### MODIFICAR EL USO DE LAS INSTALACIO-

**NES CULTURALES:** La nueva biblioteca, el edificio del frontón, la escuela de música, la adecuación del euskaltegi a las necesidades de los grupos y vecinos y vecinas del municipio. Garantizar el uso gratuito de las instalaciones para los grupos locales (Por ejemplo, utilizar Kurtzio sin pagar tasas). Utilizar las lonjas vacías del municipio para actividades culturales.

#### MEJORA DEL POLIDEPORTIVO:

A pesar de que nos han impuesto un contrato de 15+5 años, tenemos la voluntad de superar el actual modelo privatizador del polideportivo (analizar la municipalización), asegurando la calidad del servicio y habilitando instalaciones adaptadas a las necesidades de la ciudadanía. Paralizar el proyecto de construcción de las pistas de paddle en Urko, manteniendo su ubicación actual (junto a las piscinas). Cubrir, acondicionar y garantizar el uso libre del frontón del parque Iturrieta.

## Euskara

### **Sopelako udalak euskararekiko konpromiso erreala hartu:**

Euskara Plana, Euskararen Udal Orde-nantza, Euskara teknikaria eta baliabide nahikoak. Euskara ardatz, alor zeharkakoa.

### **Uribek kostako mankomunitatearen euskara zerbitzua sendotu:** Publifika-zioa, klausula sozialak (lan baldintzak hobetu, baliabide gehiago).

**Euskaltegia:** bere funtzionamendua alda-tu eta hobetu, euskararen normalkuntzan eragin handiagoa izan dezan (ikastaro-eskaintza, ordutegiak, antolaketa-aldake-ta).

### **Reforzar el compromiso del ayunta-miento de sopela con el euskera:**

plan de euskera, ordenanza municipal del euskera, un técnico propio y recursos suficien-tes. el euskera como eje municipal y ámbito transversal.

### **Reforzar el servicio de euskera de la manco-munidad de uribe kostoa:** Publificar las subcon-tratas actuales, introducir cláusulas sociales en la contratación (mejorar las condiciones laborales, más recursos).

**Euskaltegi:** modificar y mejorar su funciona-miento para que incida más en la normalización del euskera (oferta de cursos, horarios, cambio organizativo).

## **Udal funtzionamendua eta gobernantza**

### Funcionamiento del ayuntamiento y gobernanza

**BESTE LIDEROGO BATZUK:** Udalak gidatzeko eredu aldatu (gardena, kooperativoa), parte-hartzerako kultura erreala txertatuz bere funtzionamenduan. Udalaren Antolakuntzaren Araudia aldatu (ROM). Iruzuraren aurkako plana.

**BESTE FUNTZIONAMENDU MODU BAT:** Udalaren lan antolakuntza hobetu (lana optimizatzeko neurri zehatzak), zerbitzu publikoen kalitatea bermatu (adibidez, zenbait zerbitzuren lehengoratzea aztertu: lorenzainza, turismoa, kirolddegia...).

**KLAUSULA SOZIALAK:** azpi-kontratatu-tako zerbitzuetan eragin (lan-baldintzak, euskararen erabilera, ikuspegi ekolo-gikoak, ikuspegi feminista. aniztasun funtzionala...).

**OTROS LIDERAZGOS:** Cambiar la forma de liderar el Ayuntamiento (más participativo, transparente, cooperativo), introduciendo la cultura de la participación en su funcio-namiento. Modificación del Reglamento de Orgánico Municipal (ROM). Plan contra el fraude.

### **OTRO MODELO DE FUNCIONAMIENTO**

**MUNICIPAL:** Mejorar la organización del Ayuntamiento (medidas de optimización del trabajo), garantizar la calidad de los servicios públicos (estudiar la munici-palización de servicios como jardinería, turismo, polideportivo...).

**CLÁUSULAS SOCIALES:** Incidir en los servicios subcontratados (condiciones de trabajo, uso del euskera, perspectiva ecoló-gica, igualdad, diversidad funcional...).



## Ekintza soziala eta zaintzak

Acción social y cuidados

### **ADINEKOI ARRETA EMAN:**

Uribe Kostako Mankomunitatearen eguneko zentroa abian jarri, eskualdeko adineko herritarrei eta beraien zaintzaileei arreta emateko. Sopelako Jubilatuen Etxea baseteaz gain, adinekoentzat programazio sozial eta kultural bereziak abian jarri.

**DIRU-LAGUNTZA SOZIALAK ETA GIZARTE ZERBITZUAK:** Udal eta mancomunitate mailako dirulaguntzak handitu; Mankomunitateko gizarte zerbitzuen funtzionamendua indartu.

### **ANIZTASUN FUNTZIONALA:**

Dibertsitate funtzionala duten pertsonenkin komunikazioa errazteko berariazko baliabideak erabiltzea, haien bizi-kalitatea hobetzeko.

**SOPELA HARRERA HERRIA:** Alor sozioeconómicoa lantzeaz gain, euskara eta euskal kultura harrerako bideak izatea bizilagun etorkinentzat, zubiak eraikiz eta Sopela harrera herri bihurtuz. Herriko auzokide etorkin eta arrazializatuak ikusgarri egingo ditugu, ahotsa eta babesa emanez.

**ANBULATEGIA:** Osasun zerbitzu publikoen hobekuntza aldarrikatu, gure anbulatorioa indartzea exijituz Osakidetzari (pediatría, baliabideak, ordutegiak...).

### **ATENCIÓN A LAS PERSONAS MAYORES:**

Puesta en marcha del centro de día de la Mancomunidad de Uribe Kosta para atender a la población mayor de la comarca y a sus cuidadores. Además de apoyar al Hogar del Jubilado de Sopela, poner en marcha programaciones sociales y culturales especiales para las personas mayores.

### **SUBVENCIONES SOCIALES Y SERVICIOS SOCIALES DE LA MANCOMUNIDAD:**

aumentar las subvenciones municipales y mancomunadas, reforzar el funcionamiento de los servicios sociales de la Mancomunidad.

**DIVERSIDAD FUNCIONAL:** Utilización de recursos específicos que faciliten la comunicación con las personas con diversidad funcional de Sopela, de cara a mejorar su calidad de vida.

### **SOPELA COMO MUNICIPIO DE ACOGIDA:**

Además del ámbito socioeconómico, que el euskera y la cultura vasca sean herramientas de acogida para los vecinos y vecinas migrantes. Haremos visibles a las personas migrantes y racializadas del pueblo, dándoles voz y apoyo.

**AMBULATORIO:** Reivindicar la mejora de los servicios públicos de salud, reforzando nuestro ambulatorio (pediatría, recursos, horarios).

## Feminismoa eta berdintasuna

### Feminismo e igualdad

#### **EMAKUMEEN ETXEA:**

Sopelako mugimendu feminista baliabi-deak eskaini eta ahotsa eman (babesa, lankidetza, espazio propioa...).

**FEMINISMOA ARDATZ:** Ikuspegi feminista Udalaren alor guztietan txertatu (hirigintza, hezkuntza, ekintza soziala, komunikazioa...).

#### **ANIZTASUNARI AHOTSA ETA BABESA:**

Identitate aniztasun sexuala asko eraikitako baliabideak eskainiko ditugu.

#### **CASA DE LA MUJER:**

Ofrecer recursos y dar voz al movimiento feminista de Sopela (apoyo, espacio propio, cooperación).

#### **FEMINISMO COMO EJE TRANSVERSAL**

Integrar la perspectiva feminista en todos los ámbitos municipales, como urbanismo, educación, acción social, comunicación...

#### **VOZ Y APOYO A LA DIVERSIDAD:**

Ofrecer recursos para la construcción libre de identidades sexuales diversas.

## Komunitatea

### Comunidad

#### **BIZIKIDETZA:**

Herritarren adierazpen askatasuna bermatu, Mozal Legea bezalako salbues-penezko neurriekin bukatuz (adibidez, egungo Gizalegari buruzko Udal Ordenantza) eta herritarren ongizatea bultzatuz (guk proposatutako Bizikidetza Ordenantza).

#### **UDALTAZINGOA:**

Gertuko eredu bultzatu, komisaria berri bat eraiki beharrean egungo komisaria birmoldatu, erdigunean bertan mantendu dadin.

#### **MEMORIA HISTORIKOA:**

Sopelako memoria berreskuratzen jarraitu, gure ondarea babestuz eta bizi-kidetzan urratsak emanez (antifaxismoa, gatazkaren konponbidea) eta ez baliabide turistiko «neutral» gisa erabiliz (Burdin Hesiari bisita gidatuak).

#### **ORDENANZA DE CONVIVENCIA:**

Garantizar la libertad de expresión de los vecinos y vecinas, acabando con medidas excepcionales como la aplicación de la Ley Mordaza y la actual Ordenanza Municipal de Civismo garantizando el bienestar de la ciudadanía (Ordenanza de Convivencia propuesta por EH Bildu).

#### **POLICÍA MUNICIPAL:**

Impulsar un modelo cercano y amable que, en lugar de construir una nueva comisaría fuera del pueblo, remodele la actual instalación para que se mantenga en el mismo centro del pueblo.

#### **MEMORIA HISTÓRICA:**

Seguir recuperando la memoria de Sopela, protegiendo nuestro patrimonio y dando pasos en la convivencia (antifascismo, resolución del conflicto) y no utilizándola como recurso turístico "neutral" (visitas guiadas al Cinturón de Hierro).



## Merkataritza, enplegua eta tokiko garapena

### Comercio, empleo y desarrollo local

#### **OSTALARITZARI ETA MERKATARI**

**TXIKIEI LAGUNTZA:** Sopelako Merkataritzia Biziberritzeko Plan Berezia (PERCO) eguneratzea, 2011-2015 legegintzaldian finkatu baina ordutik blokeatu dena. PERCO analisiak udalerriko administrazio publikoek eta saltokiek eta ostalariek elkarrekin garatzen dituzten planak dira, eta herri-merkataritzaren garapena bultzatzea eta errealtitate sozioeconómico berrira egokitzten laguntzea dute helburu, merkatariak eta ostalaria saretuz eta merkataritza-eremu dinamikoagoak sortuz (komunikazio-kanpainak, bono-dendak, gastro-bonoa...).

#### **BEHARGINTZA:** Beharrezko da

Uribe Kosta osatzen duten udalerrietako Enplegua eta Ekonomia Sustatzeko Udal Zentroa birmoldatzea (Behargintza), bere funtzionamendua demokratizatz, bere gardentasuna areagotuz eta gure udalerrien garapen ekonomikorako tresna eraginkorra bihurtuz (eskualdeko enplegu planak, industria politika). Hau lortu ezean, Behargintzatik ateratzea eskatuko genuke, modu eraginkorrean Udalak berak tokiko garapenerako estrategiak kudea ditzan (enplegu plan lokalak, Sopelako industria-gunea).

#### **APOYO A LA HOSTELERÍA Y AL PEQUEÑO COMERCIO:**

Actualizar el Plan Especial de Revitalización del Comercio de Sopela (PERCO), fijado en la legislatura 2011-2015 y bloqueado hasta el momento. Los análisis PERCO son planes que se desarrollan conjuntamente entre administraciones públicas, comercios y hosteleros del municipio. Tienen objetivo favorecer como el desarrollo del comercio urbano y facilitar su adaptación a la nueva realidad socioeconómica, generando áreas comerciales atractivas y dinámicas.

**BEHARGINTZA:** Es necesario remodelar el Centro Municipal de Empleo y Promoción Económica de los municipios que conforman Uribe Kosta (Behargintza), democratizando su funcionamiento, aumentando su transparencia y convirtiéndolo en un instrumento eficaz para el desarrollo económico de nuestros municipios (planes comarciales de empleo, política industrial). En caso de no conseguirlo, solicitaríamos la salida de Sopela de Behargintza para que el propio Ayuntamiento gestione eficazmente las estrategias de desarrollo local (planes locales de empleo, zona industrial de Sopela).



# Bizkaia 2023-2027

**Iker  
Casanova  
Alonso**

Bizkaiko  
Ahaldun Nagusirako  
hautagaia

Candidato  
a Diputado General  
de Bizkaia

BIZKAIAREN ETORKIZUNAREN ALDEKO APUSTU  
IRMOA EGITEN DUGU, ETA, IKUSPEGI HORI EGIA  
BIHUR DADIN, ANBIZIOZ ETA IKUSPEGI INTEGRAL  
BATEKIN LAN EGINGO DUGU. HORRETARAKO,  
LANA LAU ARLO NAGUSITAN EGITURATUKO  
DUGU: ENPLEGUA, EKONOMIA SUSTAPENA,  
INGURUMENA ETA POLITIKA SOZIALAK.

Bizkaia tiene que ser un territorio que se reinvente en torno a un modelo económico basado en la industria inteligente y sostenible, apostando por una economía industrial y del conocimiento; se debe vertebrar a través de un sistema de comunicación centrado en el transporte público, y reorganizarse urbanísticamente para alcanzar un diseño del territorio que combine armónicamente la actividad económica y la residencial, de tal forma que ofrezca a sus habitantes calidad de vida, un medio ambiente recuperado y la posibilidad de desarrollar proyectos vitales en un entorno de prosperidad, igualdad, justicia, cultura e inclusión.

*Bizkaia bidezkoa,  
aurrerakoia, feminista,  
ekologista, euskalduna...  
eraiki nahi dugu!*



## Reindustrialización inteligente

Tras una etapa en la que la industria parecía haber “pasado de moda” en favor de las economías de servicios, hoy se vuelve a reconocer de forma unánime el valor de una economía industrializada. La industria produce valor añadido. Los países y zonas industrializadas son más ricas que el resto. El empleo estable y generalmente bien remunerado que genera la industria es un factor de cohesión social. Bizkaia necesita recuperar la actividad industrial. Por eso hemos de apostar por una industria moderna, avanzada, tecnológica y que, además, incorpore la atención a factores sociales y medioambientales.



## Politika sozial indartsuak eta zaintza ekosistemak

Pertsonen bizi baldintzak hobetuko dituzten politika berriak behar ditugu. Gaur egun, zaintza sistemako baliabideen hornidura eta antolamendua errepasatu besterik ez da egin behar defizit handia dagoela egiazatzeko (bai epeei dagokienez, bai ereduari dagokionez) eta pribatizazioa gero eta handiagoa dela ikusteko. Zaintza ekosistemak tokiko esperientziaren garapenean oinarritzen dira, arreta eredu pertsonalizatuagoak sortzen laguntzeko, eredu malguak eta komunitarioak, jendar-te berrikuntzatik pentsatuak, etxeko arreta bultzatuz eta jendarte eta osasun sistemaren arteko sinergiak hobetuz.

# Maite duzun Bizkaia

EGINGO DUGU.



Iker  
Casanova  
Alonso

Bizkaiko  
Ahaldun Nagusirako  
hautagaia

Candidato  
a Diputado General  
de Bizkaia

*Zurekin batera,  
inoiz baino gehiago  
izango gara.*

Zuk bezala, Euskal Herria Bildun herri hobe batekin egiten dugu amets eta, horregatik, maite duzun Bizkaieren alde egingo dugu. Aldaketak datozen, eta gure esku dago aukerak baliatzea. Belaunaldi berrien etorkizuna, osasun publikoa, adinekoen zaintza eta zaintzen dituztenen lan-baldintzak, enplegua, gure herrien etorkizuna, industria, bizitzaren garestitzea, etab. EH Bilduk konpromisoa eta konponbideak eskaintzen ditu. Jendearen ohiko arazoei aurre egiteko konponbideak eta hori posible egiteko konpromisoa.

*¡Es posible!*

**ehbildu**

 @Iker\_\_Casanova

 bizkaia.ehbildu.eus